

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012ko martxoaren 23a
314. zenbakia. 23. urtea



Juan Priede, hamar urte

Hamarkada bat pasa da PSE-EEko zinegotzia ETAk hil zuenetik. Orduko gertakaria eta egungo Udaleko taldeen ikuspegia ekarri dizkizuegu.

05

Orioko kontuak

Hondakinen kudeaketa

09

Kirolak

Harmailatik: Iñaki Beraza

12

Aiako leihoa

Eli Lasa

24

Oroimenaren kutxa

Orioko umezurtza (eta II)

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

FISIOTERAPIA: Gaiterik Arriaga eta Nerea Wernicke
KINEZIOLOGIA: Gaiterik Arriaga

sinergia

investigación
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-sina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 65 95



RAMIRO

argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

Sagasti

LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orrio (Gipuzkoa)

uranga

autozerotzua

Aliprox

Enplegu Gidari Taldea 13-15
ORIO
943 63 10 75

Zaragueta

Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: Or2137aa@medikuntza.net

tel/fax: 943 89 00 69
Bilaka kalea 4 - 20100 ZARAUZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU, ERAKUSKETA

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremuntak

Ur. uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

SOLOZABAL

autoeskola

Eusko Gudari, 30-1, ork
telefon: 943 83 08 12

Orioko

Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi andean
Tfnoa: 943 83 01 89

MIRANDA

tuturak, etxeko eskafelak...
behar izanizkoak
egutzi (kalkulatu)

Gudarrietako bidaiak: 1 - 0650 42 32 70 - ZARAUZ

mauka

PAPERDENDA, LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572083
FAX: 943 571190
lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
IBAI ONDO 13
20810 ORRIO

PERTSIANAK

AKO MAZ

Aluminio, PVC,
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 05 77 Muzikorra 600 76 52 27

TAILER MEKANIKOA

MANTEROLA S/L

TORRODEAN - BILBAO

Santiago auzoa - 18 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

AENOR kalitate ziurtagiriak

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Taldea
Agote Industrialeko
Agote, 5
20740 Zarauz

Erakusketak
Gai Puzatza, 1
20800 Zarauz

Aho Lantzaile, 21
20810 Orrio
Tel: 943 99 40 20

Udaberria loratzen denean

1

Udaberrian toki guztitan
ernaltzen dira loriak,
Orion berriz kapot gainetan
paper zuri ta horiak.
Sasoi honetan lapurrak ere
izateia ugariak.
Enzun ba niri lapurtutako
bizikletan komeriak,
bi bider lapurtu zidatela
esaten baitu jendiak.

2

Konpra bikain bat egin nuen
Donostiako azokan,
bizikleta bat erosi nuen
berrogeita bost eurotan.
Aparkatu nun udaletxeko
atzeko karkara hortan,
bi egun aski izaten dira
gurpil bat lapurtzekotan,
halaxe egin zuten lapurrek
eta udaltzainak lotan.

3

Udaltzainek loriak ipintzen
bazuten nahiko zeregin
ta alkilerren erosi nuen
errueda bat, ta ze min!
Berrogeita zortzi eurogatik
jarri zidatela fin-fin,
bigarren eskuko bizikleta
ta ni gurpil berriakin,
orain aurreko gurpila lotzet
kandau ta kate batekin.

314

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldea

Pat Cowie,
Miren Etxeberria,
iker Gurrutaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze
eta Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria
eta Jabier Zabaleta

Ale honetako

laguntzaileak

Iñaki Iturain,
Aiora Larrañaga,
Orain, Orioko Bildu,
Orioko EAJ,
eta Igor Salsamendi

Laguntzaileak

Garbiñe Manterola

Diseinua

Daniel Agirre Lertxundi

Banatzaileak

Cristina Burlacu eta
Iban Recio (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain
hartzen aldizkarian
adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.
KARKARAN argitaratutakoa
berreman daiteke, osorik edo
zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin
(695 780 720)
edo publizitatea@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Zeinen ongi birziklatzen dugunetik

Gure etxean, lehen, zaku zikin-zikin eta bete-betea ateratzen genuen egunero; eta orain, berriz, astean lehengai garbiz betetako 4 zaku eta 3 astetik behin birziklatu ezin daitekeen poltsa ia inerte bat ateratzen dugu.

Pozetz txoratzen gaude, sukaldean erabilitako organikoa konposta egin eta berriro lur nola bihurtzen den ikusiz, barrazki eta loreak ere indartsuago dauzka gu baratzean, sortzen dugun konposta ongarrigisa erabiltzen dugunetik.

Amona, haurrak, gazteak eta helduak erraz moldatu gara etxean lehengai bakoitzari bere lekua egiten.

Eta zein ongi sentitzen garen, uzten dugun paper eta kartoia, zuhaitz gehiago moztu baino lehen, berriro erabiliko direla jakitean. Eta zein ongi ontzi arinak eta beira ere berriz ere poltsa eta botila bihurtuko direla jakitean. Birziklatuz, berria sortuz baino petrolio eta energia nuklear gutxiago beharko dela jakitean.

Zein ongi, mendiari egindako zulo batean zaborra nahastuta bota beharrean, lanpostuak sortzeko aukera ematen digulako, eta pixka bat, bakarra bada ere, natura, gure ingurua eta gu geu zaintzen saiatzen garelako.

Hondakinen atez ateko bilketa sistema gure herrian jartzeak poztuko gintuzke, eta izugarri lagunduko liguke gure zeregin honetan. Etxean bertan zintzilikarioa jarrita, eguneko lehengaia ateratzeko aukera izango genuke etxeko edozeinek; izan ere, gaur egun ditugun edukiontzia ez dira horren erosoak, tapak astunegiak eta altuegiak dira, denak autoen inguruko bideetan daude eta etxeko gaztetxoentzako eta zaharrentzako zaila da ardura hori hartzea.

Birziklatzearen sentipen onaz konturatuko bagina denok, gutxiago kostatuko litzaiguke birziklatzea, eta dena batera nahastuta botatzen denaren kostu ekonomikoa eta ekologikoa murriztuko genuke. Elkarrekin sortzen dugunaz, burujabe izatera iritsi gintezke.

Herri bezala efektiboagoak eta zuzenagoak izatera hel gaitezke, lortzen diren lehengaien salmentaz dirua berreskuratuz, lanpostuak sortuz, herritar eta enpresa bakoitzak sortzen duenaren arabera ordaindiz, eta sortutako konpostaz gure lurrak indartuz.

Gure sentipen ona herritar guztiei helarazi nahi dizuegu, bizikidetzan baliozkoa izango dugulakoan. Agur denoi eta egun ona izan ■ **Leire Zinkunegi, Josu Galdos eta Kattalin eta Maxe Zinkunegi Galdos**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

10 urte kartzelan

Hamar urte bete dituk martxoan, Gregorio. Hamar urte kartzelan. Hamar urte Galiziako Curtisen. Hamar urte hire burusoila ikusi gabe Orioko kaleetan. Hamar urte hi gabe. Hire falta denborak eta kilometroek neurtzen ditek ederki. Hamar urte eta milaka eta milaka kilometro. Galiziara bidean errepideko marra-soka zuri luze horrek giza eskubideak eta gizalegea zeuzkak lepotik hartuta. Hire eta gure eskubideak itozten, gizalegea arnasa hartu ezinda. Giza eskubideak urkatzen dituen soka zuri

Udaleko langileek greba egingo dute martxoaren 29an

Martxoaren 20an, asteartearrekin, batzarra egin zuten Orioko Udaleko langileek, erabaki bat hartzeko martxoaren 29rako lan-erreformaren kontra deituta dagoen greba orokorra dela-eta. Batzarra 14:30ean egin zuten udalbatzarraren aretoan eta bertan, gehiengo handiz, egun horretan greba egitea erabaki zuten udal langileek. Jaurilaritzak ez ditu oraindik erabaki egun horretan bete beharko diren zerbitzu minimoak.

luze hori mozteko garaia duk. Orion taldetxo bat hasi gaituk lanean lepoan daramagun soka hori lasaitzeko. Egoera itogarri honetatik ateratzeko. Ez delako legezkoa legeak gizalegerik ez izatea. Ez delako bidezkoa eskubiderik eza. Gregorio 10 urte kartzelan. Eskubide guztiekin, herrira!

Urtebetetze guztiak ez dituk ospatzekoak izaten, baina ahaztekoak ere ez. Beraz, kartzelan hagoela gogoratu eta gogorazi nahi diagu. Ez diagu ahaztu nahi hamar urte egun asko direla, milaka kilometro bidaia asko direla. Hamar urte elkar ikusteko eta ukitzeko minutu gutxi direla. Martxoaren 30ean, azken ostiralean, herriko plazan bilduko gaituk iluntzeko zortzietan. Hamargarren urteurren triste horretarako ekitaldi bat prestatu diagu. Hire senideak, lagunak eta ezagunak bilduko gaituk bertan. Oriotarrak. Hire askatasunaren bidean galdutako hamar larrosak landatuko dizkiagu herriko plazan. Hire hamar urteak loratuko direlako askatasunaren lurrean. Hire hamar arantzak lore ere badirelako. Hire hamar loreak arantza ere badirelako. Aupa Gregorio!

Norbaitek Gregoriori idatzi nahi badio, martxoaren azken ostiralean berari bidaltzeko postalak banatuko ditugu herrian barrena. Bestela, hauxe da helbidea:

CURTIS (Teixeiro)
Centro Penitenciario
Carretera Paradela s/n
15.310 CURTIS (A Coruña)

■ **Orioko Herrira**

Espetxe politikaz

Gregorio Eskudero herriko presoak hamar urte bete ditu kartzelan. 600 kilometrorra daukate Galiziako Curtisen, eta hamar urte horietatik lau isolamenduan egin ditu.

Garai berrian jarrera berriak landu behar ditugu guztiok, izan ditugun jarren autokritika egin behar dugu. Horregatik uste dugu gaur egun oraindik indarrean dagoen espetxe politikak ez duela bakea eta adiskidetzera sustatzen.

Horregatik eskatzen dugu berriro euskal presoak Euskal Herriko kartzelertara gerturatzeko, beren familiak eta lagunek ez dutela zertan mendekua errepidean ordaindu. Geroz eta jende gehiago ari da eskatzen gaixotasun larriak dituzten presoak askatzeko.

Eragile askok zentzugabekoa ikusten du egungo espetxe politika. Orioko Bilduk konpartitzen du eskaera hori bera!

■ **Orioko Bildu**



Hondakinen %28 birziklatzen da Orion, Gipuzkoan, batez beste, %32. KARKARA

Hondakinen gaiarekin alderdikeria soberan dela dio Solaberrietak

Orioko birziklatzeko ohiturak ez direla batere onak eta Gipuzkoako batez bestekotik, %32tik, 4 puntu azpitik gaudela azpimarratu du Orioko alkateak. Ongi berziklatzen bada, %80ra inguratu daiteke.

Hondakinen gaia bolo-bolo dabilen honetan, Orioko alkateak gaiaren gaineko bere iritzia plazaratu zuen martxoaren 16an, udaletxeko teilatupeko gelan egin-dako gosari informatzailean hainbat kazetariren aurrean. Beñat Solaberrietak Orioko birziklatze maila baxua dela esan zuen eta, horretarako, Garbitania enpresa azterketa bat egiten ari dela hori nola hobetu jakin ahal izateko.

Sentiberatasun falta arazo handienetakoa dela esan zuen Solaberrietak eta, hondakinen gaiari dagokionez, gako na-

gusia hezkuntzan dagoela gaineratu zuen. *Haurrek birziklatzearena helduok baino argiago dute. Txikienek jakin bada-kite nola egin, helduok gara ikasi eta ditugun ohitura txarrak aldatu behar ditugunak*, esan zuen Solaberrietak.

Alkateak birziklatzearen garrantzia nabarmendu zuen behin eta berriz, *asko eta ondo birziklatzea ingurumenari, gure osasunari eta etorkizuneko belaunaldi-eraz diegun zerbait delako. Ohitu gara papera, beira, plastikoa eta olio bereizten eta organikoa da falta zaiguna. Besteare-*

kin nahastu gabe biltzen badugu, birziklatzea %80koa ere izango da.

Atezatekoa

Kazetariak ez zuten denbora asko pasa atez atekoaren inguruan galdetu aurretik, eta alkateak argi eta garbi erantzun zuen: *Lehendabizi birziklatzea dago eta gero eztabaidatuko dugu zein izan behar den bilketa eredua. Irtenbiderik egokiena eman behar zaie hondakinei eta guztion artean erabaki beharko dugu hori.*

Atez atekoa jarriko denik ez zuen esan alkateak eta, izatekotan, eperik ere ez zuen eman. Irtenbiderik egokiena bilatu behar dela adierazi zuen

Hondakinen gaiarekin ere herritarren parte hartzea sustatu behar dela esan zuen Solaberrietak. Hala, herritarrei oinarritzko informazio zuzena eman behar zaiela eta *giltza birziklatzearen garrantziaren inguruko sentsibilizazioa indartzean* dagoela gaineratu zuen. *Hortik aurrera, eta sentsibilizazio lan bat egin ostean, eskainiko dira iritzia plazaratzeko moduak eta sortuko dira eztabaidarako tarteak. Herritar guztiekin osatuko dugu herriko hondakinak biltzeko proiektu egokiena, baina ahal den gehiena birziklatu behar dela zalantzan jarri gabe.*

Horretarako, Garbitania enpresari Orioko hondakinen kudeaketaren gaineko auditoria bat egiteko eskatu dio Udalak. *Garbitania enpresak aurretik ere egin ditu bestelako azterketak. Enpresa publikoa da eta Oiarzungo, Hernaniko eta Usurbilgo udalek osatzen dute.*

Auditoriaren emaitzak jaso bezain pronto herritarrei aurkezteko asmoa azaldu zuen Solaberrietak eta hortik aurrera hasi erabakiak hartzen. *Dena dela, hondakinen gaiarekin alderdikeriak ez duela lekurik iruditzen zait. Ni alderdi bateko kide naiz, baina alderdi horretako kide izan ala ez, ingurumena zaintzeko bide egokiena aukeratu beharra dagoela iruditzen zait esan zuen alkateak.*

Atez atekoa jarriko denik ez zuen esan alkateak eta, jartzekotan, eperik ere ez zuen eman. Hala ere, atez ateko bilketa-sistemaren inguruan, Beñat Solaberrietak honakoa esan zuen: *Eztabaida mahai gainean jarri behar da eta herri bakoitzak aztertu behar du zein den bere herriarentzat sistematik egokiena. Hala ere, ezin dugu ahaztu Urola Kostako Mankomunitateak duela hondakinen eskuduntza eta harekin batera egin beharko dugula lan sistematik egokiena aurkitzeko. Zaborte-gia gainezka daukagu eta irtenbidea eman behar zaio bukatu zuen alkateak.*

Bidezko merkataritzako produktuak jarri dituzte salgai Orioko Eroskin

Kafea, kakaoa, txokolatea, azukrea eta arroza jarri dituzte Eroskiko ordainlekuen aldameneko apaletan. Uda ondoren ikusiko dute herritarrek zein harrera egin dieten produktu berriei.

Bidezko merkataritzako produktuak jarri dituzte salgai herriko hainbat boluntariok Eroski dendan. *Festetan eta azoka izaten denean jarri izan ditugu produktuak salgai, baina jendeak egunero egiten ditu erosketak; beraz, ezin dugu espero jendea, guk salgai noiz jarri zain egotea. Arroza, kafea... erosi behar badituzte ezin dute itxaron guk postua jarri arte. Beraz, Eroskin salgai jarrita, gure asmoa da jendeari aukera ematea edozein momentutan produktu horiek erosteko, azaldu du Jokin Uranga bidezko merkataritzako boluntarioak.*

Gehiago baloratu

Salgaiak ordainlekuen aldameneko apaletan daude eta honako produktuak jarri dituzte jendearen eskura: kafea, kakaoa, txokolatea, azukrea eta arroza. Urangaren esanetan, *ohikoak baino garestiago-*

ak izan arren, egunero erabiltzen diren produktuak direnez, beste toki batzuetan ikusi dugu saltzen direla; horrelakoei apenas duela krisiak eraginik. Jendeak gehiago baloratzen ditu bidezko merkataritzako produktuak; besteak beste, ekologikoak direlako eta haiek ekoizten dituzten garapen bidean dauden herrialdeetako nekazariei soldata duinak ordaintzen dizkietelako, haiei kostatzen zaiena, alegia. Izan ere, multinazionalak oso gutxi ematen diete. Bestalde, nekazariak haziak erosteko dirua ere ematen zaie merkataritza honen bidez.

Asmoa da uda pasatu arte Eroskin salgai izatea, eta jendearen harreraren araberak erabakia hartzea. *Eroskin konforme azaldu dira gure eskaintzarekin. Uda ondoren balorazioa egin eta ikusiko dugu zer martxa izan duen eta, hala bada, bertan utziko ditugu, bestela erretiratu.*



Gurutze Iartza eta Amaia Uranga. KARKARA

Arantzazura oinez apirilaren 5ean

Duela urte batzuetatik hona, Joxe Mari Lizaso eta Joxe Manuel Urkizuri esker, garai bateko ohitura berreskuratu dute. Beraz, Ostegun Santu egunean, Oriotik Arantzazurako ibilaldia egingo dute.



Iaz 21 lagun joan ziren Oriotik Arantzazurako ibilaldia egitera. MENDIBELTZ

Apirilaren 5ean, Ostegun Santu egunean, Oriotik Arantzazurainoko ibilaldia antolatu dute Joxe Mari Lizasok eta Joxe Manuel Urkizuk. Mutil kozkorrak zirela egiten zutela eta, ohitura hori berreskuratu dute.

Ibilaldiak 58 kilometro ditu eta egun batean egiten dute. *Aiatik, Usurbildik eta Donostiatik ere joaten dira, baina guk beste ibilbide bat egiten dugu esan dute antolatzaileek. Goizeko 04:00etan abiatzen dira Oriotik eta Zelatun, Bidania, Santa Ageda, Mandubia, Kizkitza, Gabiria, Aztiria eta Brinkola atzean utzita, iluntzeko 19:00ak alderako iristen dira Arantzazura.*

Bidea ez da hain gogorra. Egia da kilometro asko direla, baina hasieran eta bukaeran daude malda gogorrenak. Gainera, Mandubian eta Aztirian geldialdiak egiten ditugu otorduak egiteko, kontatu digu Joxe Manuel Urkizuk.

Antolatzeko bilera

Iaz 21 lagun izan ziren eta nahi duenari ibilaldirako gonbita egiten diete. Apirilaren 2an, 19:30ean, Balea elkartearen egingo dute bilera, ibilaldiaren nondik norakoak azaltzeko. Bestela, 680 622 600 telefono zenbakira deitu beharko da.

Martxoaren 27tik 30era Musika Astea izango da Danbolin eskolaren eskutik

Instrumentuko ikasleak arituko dira egun gehienetan eta musika tailerrekoek ere izango dute tarte. Bestalde, Alos Quartet taldea ostegunean egitekoa zen kontzertua apirilaren 26ra atzeratu dute

Joan den astelehenean Zumarragako Secundino Esnaola musika eskolako ikasleekin elkartruke kontzertua egin ondoren, Danbolin Musika Eskolakoek martxoaren 27tik 30era bitarterako Musika Astea antolatu dute. Kultur Etxean izango dira saio guztiak 17:30ean hasita.

Asteartean, martxoaren 27an, instrumentuko ikasleen bi saio izango dira 17:30ean eta 19:00etan. Hilaren 28an,

tailerreko ikasleek egingo dute emanaldia 17:30ean eta 18:30ean, instrumentuko ikasleen txanda izango da.

Denetariko tresnak entzungo dira, batzuk konbinatuz eta besteak taldean tresna berdinarekin: biolina, esku-soinua, flauta, gitarra klasikoa eta elektrikoa, klarinetea, panderoa, perkusioa, pianoa, saxofoia, trikitia, tronboia, tronpeta eta txistua.



Danbolineko ikasleek Zumarragako musika eskolakoekin elkartruke kontzertua egin zuten. KARKARA

Ostegunerako, martxoaren 29rako, kontzertu pedagogikoa zegoen iragarrita, baina Udal langileak greba egingo dutenez, apirilaren 26ra atzeratu dute emanaldia. Egun horretan 17:30ean izango da saioa Kultur Etxean. Xabier Zeberio, Francisco Herrero, Lorena Nuñez eta Pello Ramirez musikariek osatutako Alos Quartet soka taldeak egingo du kontzertua.

Amaiera kontzertua

Ostiralean instrumentuko ikasleak arituko dira 17:30ean eta Musika Astearen amaiera kontzertua 19:00etan egingo dute. Azken kontzertua berezia izango da, batetik, teknikari dagokionez ohikoa baino maila altuagoko piezak joko dituztelako eta, bestetik, musika eskolako ikasle diren helduak ere taula gainera igoko direlako. Danbolineko zuzendari Elena Errastik esan duenez, *horietako batzuentzat nahikoa ahalegin bada eszenatokira ateratze hutsa*. Gainontzeko emanaldietara gaztetxo eta haur asko joaten da eta *eskatuko genuke azken kontzertura benetan gogoz entzutera joan dadin jendea; izan ere, ez dugu nahi hala joaten direnei aukera kentzea edo traba egitea*, dio Errastik.

Musika Astea antolatzen dute urtero eta helburua da *musika eskolan, lauparetaren artean, egiten duguna kanpora, jende aurrera ateratzea*. Horrela ikasleei aukera ematen diegu eszenatoki gainean ikasitakoa erakusteko eta baita gainontzekoena entzuteko. Era berean, kontzertua entzutera joaten direnek musikaz gozatu ahal izango dute, dio zuzendariak.

LABUR

Karta-jokoa

Mus, tute eta puntu txapelketak

Apirilaren 10ean hasiko dira Zaharren Babeslekuko mus, tute eta puntu txapelketak eta martxoaren 31 izango da izena emateko azken eguna. Partidak zozketa bidez erabakiko dira eta kaleraketa eran jokatu. Gutxienez zortzi bikotek eman behar dute izena txapelketak aurrera egiteko. Partidak 16:00etan hasiko dira eta bazkide bakoitzak ezin izango du bi modalitate baino gehiagotan aritu.

Euskara

Karkararen kanpaina

Laguntzaile bila gabiltzala jakinarazi genuen aurreko KARKARAN. Hori indartzeko asmoz, eskaintza berezia dugu laguntzaile berrientzat. Eguneko menua jateko txartela emango dugu oparitan laguntzaile egitearen truke. Horrez gain, Berriak ere eskaintza berezia egingo die laguntzaile berriei zein aurretik laguntzaile direnei. KARKARA laguntzeagatik, Berriako harpidetzan %50eko deskontua izango dute 2012an. Harpidetzak egunerorako, asterako edo astebururako egin daitezke. Aukera ona bi hedabideei laguntzeko.

Justizia

Amaia Azkueren auzia

Urtea bete zen martxoaren 16an Amaia Azkueren hilketatik. Pasa den martxoaren 12an hasi zen epaiketa eta astebetez luzatu zen. Auzipetuak ordura arteko esanak alboratu eta berak ez zuela Azkue hil esan zuen epaiketan. Epaiketa luze joan da eta epaiaren zein daude orain. Bien bitartean, elkarretaratzeak egin zituzten egunero Donostiako Justiziaren Jauregiaren aurrean Azkueren ingurukoek. Horrez gain, hilaren 12an eta 16an jende asko bildu zen Orioko plazan egindako beste bi bilkuretan.

Amilibia eta Iruretagoiena aiarrak I. Mendi Lasterketako podiumean

Aiako Bizi Iturri jaian egindako kirol proban 138 korrikalari iritsi ziren helmugara. Nerea Amilibia izan zen irabazle nesketan eta Mikel Iruretagoiena mutiletan hirugarren.

Bizi Iturri jaiak kirola eta gastronomia batu zituen joan den martxoaren 11n. Izan ere, Aiako I. Mendi Lasterketa has-tearekin batera hasi zen festa. 8,2 kilo-metroko mendi ibilbidea egin zuten plaza-tatik abiatuta korrikalariek. Arretaldera jo eta, behe lainoa lagun, Pagoetako gurutzera igo ondoren, Olarteta zeharkatu eta Ernio Txikira jaitsi ziren. Handik herri-ira, ibilbideko zati estu eta labainkorrenetik joanda. Gero, Auzokalte ingurua zeharkatu zuten helmugara, plazara, iristeko. Hain zuzen ere, 138 lagun izan ziren helmugan. Horietatik, 16 aiar eta 8 oriotar.

Hassan Ait Chaou Villabonako korrikalariak irabazi zuen lasterketa gizonezkoetan eta 36 minutu eta 18 segundo behar izan zituen proba egiteko. Emakumezkoetan, berriz, Nerea Amilibia aiarrak 47 minutu eta 58 segundoan

amaitu zuen lasterketa. Amilibia ez zen izan, ordea, podiumera igo zen aiar bakarra; izan ere, Mikel Iruretagoiena hirugarren tokian iritsi zen helmugara.

Irabazleak erraz

Bi txapeldunek erraz irabazi zuten proba, bigarren sailkatuari, Igon Manzisidorrak debarrari -39:13-, hiru minutu inguruko aldea ateratzen lehena gizonetakoak eta Amilibiak bi minutu eta erdiko bere ondoren sailkatu zen Miren Casado zarratarrari -50:27-. Mikel Iruretagoienari -39:47- hiru minutu eta erdiko aldeatara zion irabazleak, eta ia lau minutuko nesketako hirugarrenari, Leire Altube oñatiarrari -51:45- Amilibiak.

Festa borobiltzeko, batek baino gehiagok babarrunak jan zituen, eta lasterketaren jaiaren lehen aldia azkena izango ez delakoan daude antolatzaileak.

AIA ETA ORIOTARREN SAILKAPENA

3. Mikel Iruretagoiena Agote 39:47
9. Asier Manterola Ondarra 42:52
20. Gotzon Iruretagoiena Lertxundi 45:03
27. Luis Manterola Larraza 45:44
28. Hodei Alkorta Azkue 46:19
29. Beñat Alkorta Azkue 46:21
37. Jose Miguel Perez Manterola 47:44
39. Nerea Amilibia Arrut 47:58
51. Jesus M. Cañas Rico 50:46
52. Mikel Heras Perez 50:49
57. Joseba Arizaga Carrasco 51:10
58. Unai Arruti Gonzalez 51:12
61. Xabier Arbizu Arruti 51:29
63. Eneko Santamaria Bereziartua 51:34
70. Mikel Azpiroz Manterola 52:17
81. Andoni Iruretagoiena 53:00
98. Garikoitz Lizarralde Lazkano 57:05
99. Aitor Albizu Eizmendi 57:34
107. Josu Uria Iruretagoiena 59:31
108. Imanol Sarasola Eizmendi 59:34
111. Gorka Agirreurreta Goikoetxea 59:52
114. Txomin Eizagirre San Sebastian 1:00:08
118. Jon Lizaso Vicente 1:01:49
127. Ainhoa Ubegun Manterola 1:09:38

Trainerua irabazle Castron eta Bilbon

Denboraldi aurreko azken bi estropadak irabazi ditu Oriok; Castron Portugalete izan zuen atzetik eta Bilbon Urdaibai. Bateletan, mutilen senior mailan, Orio A da Gipuzkoako Ligako lehena.



Castron Urdialesen martxoaren 4an irabazi zuten bandera. JAVIER LOPEZ

Denboraldia hasi aurreko azken bi estropadak irabazi ditu Orioko traineru nagusiak. Castro Urdialeseko bandera eskuratu zuen martxoaren 4an 21 minutu eta 47 segundoko denborarekin Portugaleteri 6 segundoko aldea aterata.

Martxoaren 18an Deustun jokaturako Memorial Bilban ere Orio izan zen irabazle 20 minutu, 12 segundo eta 21 ehunenekorekin Urdaibairi segundo eskas aterata. Chapela eta Zierbena izan ziren ondoren.

Bestalde, San Pedron seniorren bigarren txanda bertan behera utzi zuten itsaso zakarra zela-eta.

Batelak

Aurreko postuetan ari dira bateletan ere oriotarrak. Deban eta Loiolan jokatu diren azken bi estropadetan lehenengo izan dira jubencil neskak. Loiolan lehen postuan sailkatu ziren senior eta kadete mutilak eta haur-kadete mailako neskak. Senior neskak bietan izan ziren hirugarren eta bietan bigarren infantil mailako mutilak. Ligan jokaturako estropadetak emaitzak batuta senior mailako gizonetakoetan Orio A da lehena 90 punturekin, San Pedro da ondoren 67rekin.

Orioko elkarteak (mendi lasterketaren aitzakian)

KARKARAKO Ikerrek Orioko II. Mendi Lasterketari buruzko artikulutxoak idaztea eskatu dit, eta urteetan nik eskatu nizkionez idazlan edota antzekoak, nolabait zor nion, eta KARKARAK ematen didan aukera hau baliatuz, burutazio batzuk azaleratu nahi dizkizuet.

5.000 biztanle ditu Oriok, eta herri bizi denik ezin uka. Futbola, saskibaloia, sof-bola, arrauna, surfa, pilota, dantza, igeriketa taldea, zikloturistak, helduen hezkuntza, aisialdi taldea, koroa, bertso taldea, guraso kooperatiba den Ikastola, jubilatuen eta dendarien elkarteak, gastronomia eta ahazten zaizkidan ez dakit zenbat talde gehiago ditu. Horrek, noski, badu bere arrazoiak: Orion dagoen elkar-lanerako kultura. Alegia, norbere gauzak une batez albo batera utzi, eta guztiontzat baliagarria izan daitekeen zer-baitetan jarduteko kultura. Elkarlan horri esker, hain zuzen, irauten dute talde horiek guztiak.

Kanpotik etorri garenontzat, besteak beste, integrazio bidea ere izan dira eta dira aipatu taldeak kasu askotan; hau da, *Orio* labela ez dugunoi gauzak erraztu egiten dizkigute herrian txertatzeko garaian.

Inguruan bada jende andana etxetik lanera joan –bidean seme-alabak eskolan utzi–, bueltan seme-alabak jaso, supermerkatutik pasatu, eta garajetik zuzenean etxera iristen direnak herria zapaldu, usaindu eta ia estimatu ere egin gabe. Eta hala astelehenetik ostiralera. Asteburuan, berriz, auskalo!

Elkarteetan parte hartuz, gainera, kanpotarrak ez ezik herria bera ere irabazten irteten da, bere identitatea galdu gabe hazten ari baita.

Adi, Beraza! Ikerrek mendi lasterketaz jarduteko eskatu dik, Kronikaren erdira

iritsi haiz, eta oraindik aipamenik ez diok egin! Zentratu hadi!

Egia esan, Orioko Mendi Lasterketa ez da, hain justu, mendi lasterketa herri-koia, integratzailea, ez da Lilatoia, ez da Sansilbestrea ere –bi lasterketa hauek asko estimatzen ditut, e!–. Bertan lasterkari bezala parte hartzeko entrenamendu beharrezkoa da. Halere, lehen aipatutako ideia berriz hartuz, mendi lasterketan edota beste edozein herri ekimenaren antolaketan lagunduz, kultura sortzen eta mantentzen lagun deza-kegu. Egun horretan, oriotarrei zein kanpotarrei lasterketaz gozatzeko aukera emango diegu herritik atera gabe. Boluntarioen laguntzarik gabe, ordea, hasieran aipatutako elkarte eta jarduerak horiek guztiak ezinezkoak lirateke. Pentsa dezagun une batez: bizirik dauden ekimen guztiak desagertuko balira, zernolako Orio izango genuke? Hori nahiko genuke? Ez dut uste.

Hortaz, datorren apirilaren leian, igandearekin, goizeko hamarretan hasiko den mendi lasterketan parte hartzera animatu nahi zaituztet. Korrika aterako zaretenoi animatu beharrik ez dago, baina bai egun horretan ezinbestekoak diren herritarrei: ibilbideko bidegurutzetan, jan-edanak hartzeko tokietan, irte-eran, helmugan... oro har... Boluntario gisa aritzeko, telefono kontaktua honakoa da: 625 706 439. Bestela ere, Orion ditugun txoko ederretan barrena goiz-buelta egin, eta lasterkariak anima ditzakezue. Ziurrenik askok San Juandik Kukuarrirako bidea erdi ahaztuta izango duzue –bide hori boluntarioei esker berreskuratu dugu–; Luxarbetik Itxas-pera doan kostako bidea ere ez duzue batzuek ezagutuko, eta seme-alabei nahiz ilobei erakusteko modukoa da.

Apirilaren leian elkar ikusiko dugulakoan, jaso nire agurrik beroena.

LABUR

Futbola

Oriok irabazi zuen derbia

Dagoeneko badira denboraldi batzuk Getariako Keta taldeak Orioko Mendi-beltz zelaian jokatzen dituela bere etxeko partidak. Martxoaren 18an ere etxeko bezala aritu zen, baina aurkaria ere etxekoa zen, Orioko taldea. Partidak ikusmina sortu zuen beti bezala, eta oriotarrek irabazi zuten oraingoan 1-3. Gauzak horrela, oriotarrek arnas pixka bat hartu dute, 6 jardunaldiren faltan jaitsierako postuetatik 11 puntura baitaude Jaime Coladorenak. Getariarrak, bestalde, puntu garrantzitsuak galdu zituzten mailaz igotzeko bidean eta 3. daude lehen bi sailkatuengandik 3 puntura.

Saskibaloia

Alustiza Autobusak txakalaldian

Azken partidetan ez dira oso fin aritu Alustiza Autobusak Orioko taldeko mutilak. Kanpoan ozta-ozta azken sailkatuari irabazi eta gero, bi partida galdu dituzte jarraian, eta horietako bat aurkari zuzen baten aurka. Dena dela, 4 jardunaldi baino ez zaizkie geratzen jokatze-ko eta azken hiru postuak sailhestu dituzte, okerrik ezean mailari eutsiz. Hala ere, atzetik dituzten bi taldeen emaitza berak lortzea komeni zaie geratzen diren partidetan datorren urtean ere 2. mailan izateko.

Piraguismoa

Euskadiko maratokia

Euskadiko Kanoe Federazioak antolatuta, maratoki txapelketa jokatuko da apirilaren leian, igandearekin, Orion. Txurrukako hondartzan 12:00etan hasi eta bi ordu eta erdi igaroko dira gutxi gorabehera proba guztiak bukatzerako. Senio-rreren mailako eta 23 urtez azpiko piragui-stek 20 kilometroko ibilbidea egin beharko dute; beteranoen eta juniorren mailakoek 15 kilometrokoa eta kadete-ek 10 ekoa. Proba, aurtengo lehenada da Euskadiko Ibai eta Maratoi koparako puntuagarriak direnen artean.

"JUAN LARRAZPU" ERAIKUNTZAK, S.L.

• Baserrietako igeltseritza eta egurrezko esturketan adituak

• Etxeen berrikuntzak:

- fatxadak
- teilatuak
- sukaldeak
- bainu gelak...

Tf: 665 718 966 (Jon Arruti)

IGLESIAS

SARRAILAGILEAK

24 24HOUR SERVICE

Javier Iglesias Fernandez
637 723 308
iglesias@erribera.com

RODIO ORO

- ATAK HIRIKITZEN DITZU
- SARRAILA ZILINDRO ALDAKETAK
- ATAK IXTEN MALOKITZEN ALDAKETAK
- KONJUNTATUTAKO ZORRITZUA



SINADURA

“Baratzeak ematen didana ezin da kaleko parametrotan neurtu”

Iñaki Zaldúa

Barazki ekoizlea

Aiara etorri da Iñaki barazkiak ekoiztera, orain dela gutxi arte Orioko kalekumea izan bada ere. Urtebete baino gehiago eman du gurean; beraz, eskarmentu pixka bat hartuta erantzun digu egindako galderei, oraindik hasiberri sentitzen bada ere.

PAT COWIE

Ikasitakoa baratzean landu al duzu?

Ikasketaz nekazaritzako ingeniari teknikoa naiz, baina ikasketetatik errealitatera alde handia dago. Ingurumen hezkuntzan, igeltserotzan eta EHNE sindikatuan egin dut lan. Baina gustatu izan zait beti kanpoan lan egitea, eta bulegoko ordutegiak ez zidan uzten bikoteki-dearekin eta izan nahi genuen umearekin denbora pasatzeko aukera; beraz, erabaki genuen beste bizimodu bat probatzea.

Nola hasizinen?

Kalekumea izanda ere, posible ikusten nuen; leku gehiagotan ari ziren eta eskaera handia zegoen. Hasieran lur puska utzi zidaten Orion, praktikatzen hastea eta, gustukoa nuenez, Orioko etxea saldu eta Lokatera etorri ginen. 2.500 m² lantzen ari naiz eta, arrautzak eta fruta pixka bat lortuz gero, nahikoa da. Bezeroak? Ahoz aho zabaltzen da eta, azkenean, muga jarri behar izan dut. Aurtengo, 34-35 izango dira. Kontsumo talde mota asko daude; baina, nire kasuan, nik hartu dut iniziatiba elikadura osasun-

tsua ekoizteko, eta nik hartuko ditut erabakiak, nahiz eta bezeroen proposamenak ere kontuan hartu. Halere, gehiago landu nahiko nuke bezeroekin dudaren harremana.

“Tkasi dut burua azkarrago doala eskuak baino! Gauza asko egingo nituzke, baina denborak ez dit uzten”

“Gure apustua eginda, koherenteak izan gara ditugun ideiekin. Halere, karga handia da, niregan eta nire ingurukoengan”

Zer ikasi duzu aurreneko urtean?

Burua azkarrago doala eskuak baino! Gauza asko egingo nituzke, baina denborak ez dit uzten. Hasierako urteak dira, ume txikia dugu, eta beti nabil justu xamar denboraz. Askok lortu dut, familiak lagundu duelako eta bikotekideak onartu duelako, nolabait, nik denbora honetan ematea.

Barazkigintza dela eta, inguruko guztiei galdetzen diet eta, askotan, gehiago ikasi dut teknikariengandik baino. Seguratsuna hartzen ari naiz, haizearekin moldatzen! Baina lur ona dugu, eta haizea dagoen lekuetan izotz handia egitea zailagoa da. Duzunera egokitzen zara.

Ogibide gisa balio du?

Bai, baina ezin da konparatu kaleko bizitza, soldata edo bizimoduarekin. Gure artean erabaki dugu zenbatekin bizi nahi dugun eta horrekin moldatzen gara. Ogibide bezala balio dit; baina, akaso, urteak pasa ondoren... Auskalo! Diru aldetik, bizi daiteke, beti kontuan hartuta norberak erabaki behar duela zein bizi maila nahi duen. Kostata iristen da 1.000 eurotara, Gizarte Segurantzaren ordaindu ondoren. Kaleko lan baldintzeekin bazatoz, hobe duzu uztea. Guk aukeratu dugu, naturatik gertu bizi gara, malgutasuna ematen dit, denbora pasatzen dut semearekin, etxean... Hori dena kontuan hartzen dugu, ez dirua bakarrik.

Konbentzitutak ikusten zaitut.

Sinesten dugu gizarteak beste norabide bat hartu beharko lukeela, eta ez bakarrik soldata eta erosketak ikusi. Ingurugiroa dela eta, ari gara errekurso guztiak xahutzen. Gure apustua eginda, koherenteak izan gara ditugun ideiekin. Halere, karga handia da, niregan eta nire ingurukoengan. Apustua biona da eta orain egin dugu gazteak garelako, baina ez dugu iraungo bakarrik konbentzitutak gaudelako.

Gerra Zibileko testigantzak jasoko dituzte Aiako herritarren ahotik

Informazioa jasotzen hasi dira 1936ko gerra bizi izan zuten aiarren aldetik. Gerra kontuak ez ezik orduko bizimoduaren berri ere jaso eta herritarrei -batik bat belaunaldi berriei- zabaltzea dute asmoa

Herriko memoria historikoa berreskuratzeke asmoz herritarren testigantzak jasoko dituzte datozen hilabeteetan.

Aiako alkate zela Francoren tropek atxilotu eta fusilatu zuten Gabino Alustizaren omenaldian pentsatu zuten hainbat herritarrek proiektu honekin hastea. Tartean dira Mikel Markez, Iñaki Iturain eta Jose Mari Gonzalez de Txabarri herriko postaria.

Bestalde, Eneko Sanz Aiako Gaztelekuko dinamizatzaileria eta historialaria arduratuko da proiektua koordinatzeaz. Aranzadi Zientzia Elkartarekin hitzarmena sinatu du Aiako Udalak eta Aranzadiko idazkari nagusi Juantxo Agirrek ere babestuko du egitasmoa, besteak beste, aiton-amonak aiarrak zituelako.

Eneko Sanzek adierazi duenez, 1936ko gerran Aian bizi izan zituztenak

jaso nahi dituzte eta, ondoren, plazaratu, herriak eta batik bat belaunaldi berriek garai hartakoei buruz jakin dezaten. *Hala ere, gai gogorrek soilik ez ditugu jaso nahi, baizik eta orduko bizimodua eta beste kontu batzuk ere bai.* Aia ez zuen gerrak bete-betean kolpatu, baina haren eraginak jasan zituzten aiarrak.

Pasarteak eta argazkiak

Dagoeneko hasiak dira informazio bilketan eta edade handiko jendea elkarrizketatu dute lehenengo. Garai hura bizi izan zutenak gutxi dira eta beren ahotik jaso nahi dituzte kontakizunak. Horretarako bakoitzari zer galdetu behar dioten zehaztu behar dute alde zurretik. *Ongi jakin behar dugu pertsona bakoitza zein errealitatetan bizi izan den. Errepublika garaian edo gerra zibilean politika munduan ibilitakoak izan daitezke edo baserri giroa baino ezagutu ez dutenak,* dio Sanzek. Pasarte bitxiak jasotzen ari dira eta, besteak beste, kontatu diete errepublika garaian bere baserri ingurutik biderik ez zela hilerria eta nola eramaten zuten hildakoak gainean eta gero ehorzketarako kaxan sartu...

Hitzak ez ezik argazkiak ere jaso nahi dituzte, baina oraingoz elkarrizketatuek ez dizkiete eman. Jasotako informazioaren arabera, baliteke liburuxka bat osatzeko eta herritarren artean zabaltzea.

Horretarako, herritarrei, ekimenean parte hartzeko deia egin diete eta udal txerak jo besterik ez dute egin behar. Lehen pausoak eman ondoren, asmoa da, gerra bizi izan zutenen senideek edo ingurukoek ere haiengandik jasotako pasadizoak kontatzea.



Franco jeneralak 1945ean Aiara egin zuen bisita. AIAKO ARTXIBOA

LABUR

Zergak

Familia ugarientzat hobariak

Aiako Udalak Hiritar Izaerako Ondasun Higiezinaren Gainerako Zergatan hobariak emango dizkie familia ugariari, baina horretarako familiako titularrak egin behar du eskaria. Familia ugaria direla eta etxebizitzak 180.000 euro baino gutxiagoko balio katastrala duela egiaztatzea behar du horretarako.

Bestalde, hobaria jasotzeko eskubidea galduko luke familiakok ideren bat ohiko bizilekuaren jabe ez ezik beste ondasun higiezin batena ere baldin bada. Hiru seme-alaba dituen familiak %40ko hobaria jasoko luke, lau dituenak %50ekoa eta bost edo gehiago izanez gero %60koa. Hobari hori jasotzeko interes dutenek, apirilaren 13a baino lehen aurkeztu behar du dituzte eskaera orriak udal txerari eta horrekin batera familia liburua eta iazko ordainagiria- ren kopia eraman.

Idi-demak

Lopetegiren idi-parea irabazle

Martxoaren 9tik 12ra jokatu ziren Aiako probalekuan BBK sarirako puntuagarriak diren idi-probak. 12 bikote aritu ziren azken saioak eta Lopetegiren idi-parea izan zen irabazle 54 plaza eta 2,35 metro egin da 46 plaza eta 6 zinta egin zituen bigarrenari alde handia aterata. Bestalde, hainbat urtetan, Arrate irratian, herri kirolei buruzko berriak zabaldu dituen Ziriako Ortiz de Zaratek agur esan zien probalekuan zeudenei, aurki lan hori utziko baitu.

Eta orain zer?

Hemen nago, orri zuri baten aurrean eta azken momentuan, KARKARA inprentara bidali behar dela eta ni txoko hau bete ezinik. Eta zertaz hasi behar dut hitz egiten? Krisiaz, eguraldiaz...? Ez, bi gai hauek behintzat, ez. Lehengo astean lagun adimentsu batek esan zidan bezala, azkenaldi honetan beste gairik ez dute ia jorratzen telebistako eguneroko berrietan. Bata tristea eta askotan nazkagarria da atzetik dagoen zerrikeria ikusita, bestea, berriz, grazia ederrarekin esan zidan bezala, *ez al ginen ba lehenago ere bizi hurrengo egunean zer eguraldi egin behar duen jakin gabe?*

Liburuez inguratuta nago eta horietako batzuek interesgarriak edo entrete-

nigarriak dirudite. Asko irakurriak ditut eta, agian, egunen batean ausartuko naiz batzuk gomendatzen gustukoa dutenentzat. Horrek lan sakonagoa eskatzen du eta edozein momentutan Iratik deituko dit esanez ea noiz bidali behar duan artikulu hau.

Irakurzaletasuna aipatu dut eta gogorra ekarri dizkit eskuetan gustuko liburu bat dudanean pasatzen ditudan une gozoak. Utzi ezin diren liburu horietako bat denean, hori gozarena! ez dagoen lekutik denbora ateraz beste orri, beste kapitulu bat irakurtzeko. Bukaeran gelditzen den sentsazio goxo eta tristea, biak batera, hainbeste gozatu dudalako, baina bukatu delako. Jakinez ez dela erraza izaten hurrengo liburua azkena bezain erakargarria izatea.

Plazer hori deskubritzen laguntzea da nire helburuetako bat lan egiten dudan liburutegian. Askotan tokatu zait sekula liburu bat irakurri ez duen pertsona batek zerbait entretenigarria eskatzea, eta sarritan, lehen liburu horrekin asmatzen badut, badakit aurrerantzean ere jarraituko duela irakurtzen.

Eta zer esan gazteei buruz. Batzuk diote ez dutela ezer irakurtzen, teknologia berriei lotuta daudela... Bai, hala da, baina badira liburu potolo askoak irakurtzen dituztenak ere. Nire iloba ikusten dudanean txoko lasai baten bila esku artean duen liburua bakean irakurtzeko enpatiazko irribarre bat izaten dut ezpainetan.

Esan bezala, Irati deika daukat. Badoa...



Txokoak eta jendea

Handitu diren
piratak

Inauteriak pasatu ziren, baina oraingo argazkiak urte batzuk baditu, zortzi gutxi gorabehera. Argazkian daudenak pixka bat aldatu diren arren, oraindik *beldurra* ematen dute ezpata handi horiekin. Eskerretik hasita, Ainhoa Gonzalez de Txabarri, Iñaki Alkain, Naroa Eizagirre, Ekaitz Portularrume, Beñat Gomez eta Estitxu Markez.



1963-64 IKASTURTEA

AIAKO ESKOLAN

Aiako zimitorioan ikusi ditzakegu garai hartan eskolan ibiltzen ziren hainbat eta hainbat neska. Batzuek bertan segitzen dute, baina asko herritik joanak dira. Memoriari astindu bat emate aldera, gogora ekarri nahi izan ditugu.

Hauexek dira argazkian ezker-eskuin agertzen direnak. Goiko ilaran: Modesta Odriozola, Mari Anjeles Lizaso, Rosa Mari Zubimendi, Demetri Lizaso, Maria Jesus Zubimendi, Maribel Lertxundi, Feli Sarobe, Klara Mintegi, Mari Karmen Zumeta, Maria Jesus Zumeta, Milagros Alberdi, Maria Jesus Uria eta Rexu Aranberri.

Bigarren ilarako laukotea: Mari Pilar Lizaso, Maria Luisa Rezabal, Mari Pilar Rezabal eta Aizpea Azpiroz.

Hirugarren ilaran: Aizpea Aranberri, Aizpea Zuloaga, Roxarito Manterola, Inmaculada Arruti, ezezaguna, Margarita Odriozola, Pili Azpiroz, Mari Karmen Rezabal,

Mari Carmen Garcia, Milagros Iruretagoiena, Marisa Garcia, Marixabel Unsain, Amelia Valle, Mari Jose Albeniz eta Maria Dolores Zumeta.

Eta lurrean eserita: Mari Aizpea Lizaso, Mari Karmen Zubimendi, Ixiar Azpiroz, Mari Sol Albeniz, Loli Trebiño, Maria Pilar Mujika eta Ines eta Josefina Beldarrain.

[ARGAZKIA ETA INFOR.: KARMEN ZUBIMENDI]

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Be aparadegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - Inajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

LURDES

ANTZOKIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

ardoak, urdaikak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

943 83 09 84

alta lertxundi, 36
ORIO

Hamar urte Juan Priede hil zutela

Martxoaren 21ean bete ziren 10 urte **ETAk Juan Priede, Orioko Udaleko PSEko zinegotzia hil zuenetik**. Asteazken gauean zinegotziek urgentziazko udalbatzarra egin zuten arren, ez dugu aldizkarian han esandakoak jasotzerik izan; bai, ordea, Udalean ordezkaritza duten taldeen iritziak.

TESTUA: KARKARA ARGAZKIAK: KARKARA

2002ko martxoaren 21a zen Juan Priede, Orioko Udalean PSE-EEko zinegotzi bakarra, ETAko *Bakartxo* komandoko bi kidek tiroz hil zutenean. Gure Txoko tabernan zegoen kafea hartzen, bizkartzainik gabe, eta hiru tiro jaso zituen gutxienez, tabernan aurkitutako bala-zorroek erakutsi zutenez. Hura izan zen ETAk 2002an egindako bost hilketetan lehena.

Juan Priedek 69 urte zituen hil zutenean. Asturiasko Ponga herrikoa zen eta laurogeita hamargarren hamarkadaren hasieratik bizi zen Orion, lehenago Bizkaian bizi ondoren. Alarguna eta erretiratu, 1977an PSOE alderdian afiliatu zen eta bost urte ziren Orion zinegotzi zela, PSE-EE ordezkatzuz.

Hil zuten egunean bertan Udaleko bozeramaileen batzordea bildu eta udalbatzarrean, EAJ eta EAKo zinegotzien botekin, Orion hiru dolu egun egitea erabaki zuten. Komertzio eta denda asko itxi egin zituzten martxoaren 22an, ikastetxeetan jarduna eten eta kontzentrazioak egin zituzten, kultur eta kirol ekintza batzuk bertan behera utzi edo atzeratu.

Udalak erabaki hori hartu zuen eta hilketa gaitzesteko izan zen bestelako ekintzarik. Martxoaren 22an, eguerdian, udaletxe aurrean egindako agerraldi isilean 500 lagun inguru elkartu ziren. Herriko Plazan ziren herritarrekin batera Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta EAJko, EAKo, PPko, Ezker Batuko eta jakina, alderdi sozialistako ordezkariak; han zen, baita ere, Jose Saramago Literatur Nobel saria. Munduan gauza guztiek

konponbidea dutela eta konpontzeko bide bakarra elkarriketa dela esan zuen orduan Saramagok. Batasunaren politikarekin ados ez egon arren, independentziaren eta Euskal Herriko zati baten ordezkari izanik, ezin zela elkarriketatik kanpo utzi; horrek ondorio latzak ekarriko lituzkeelako, bere ustez.

Arratsaldean orri bat banatu zuten kalean –izenpetu gabea– Juan Priederen omenezko bertso sorta batekin eta ETA-ren aurka, *Debemos reaccionar* izenburupean erdaraz idatzitako testu batekin.

Manifestazio jendetsua

Eliza jendez lepo zela egindako hileta elizkizunaren ondoren, beste kale bilkura bat egin zen: Udalak eta PSE-EEK antolatutako manifestazioa, manifestazio jendetsua *Bakea eta askatasuna, ETA ez zioen pankartaren atzean*.



Pankartari eusten aurpegi ezagun asko. Mirari Arruabarrena orduko alkateta eta EAJko beste hainbat ordezkari, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria; administrazio publikoetako ministroa, Jesus Posada; PSOEko idazkari orokorra Jose Luis Rodriguez Zapatero, Ramon Jauregi diputatu sozialista, PPko Carlos Iturgaitz, PSCko Pasqual Maragall, IUko Gaspar Llamazares, EBko Javier Madrazo... Politikariekin batera Juan Priederen anaia eta familiako lagun bat. Hauen atzetik milaka lagun isilik herriko kaleetan barrena.

Plazara iritsitakoan, alkateak, Juan Priede gogoan hartuta, hitza maite ez ezik bere ideiak hitzez defendatzen zituela esan zuen. *Prest egon izan zen beti beste guztion hitzak eta ideiak entzuteko eta gogoz hartzeko. ETAk hitza ukatu dio.*

Batasunak ere, martxoaren amaieran Juan Priederekin zuen harreman ona jakinarazi zuen idatzi baten bidez, *ondo ulertu izan dugu elkar, esanez.*

Kartzela zigorrak

Juan Priederen hilketa leporatuta, Iñaki Bilbao Goikoetxea eta Unai Bilbao Solae-txe atxilotu zituzten handik egun gutxi-rea; 45na urteko kartzela zigorra jarri zieten gero. Pedro Cano Hernandez ere hiltzailatzat jo eta 28 urteko zigorra ezarri zioten. Bestalde, Gregorio Eskudero Alberdi oriotarra ere kartzelan da, 25 urteko zigorrarekin, zinegotzia hiltzeko, haren ohiturei buruzko informazioa eman zuelakoan. Batasunak deituta, Gregorio Eskuderoen zein beste preso-en askatasuna eskatzeko kontzentrazio-akegin zituzten.

Omenaldia

Juan hil zutenetik PSE-EEk ez zuen ordezkari izan Orioko Udalean, baina 2003ko udal hauteskundeetan Jesus Rodriguez buru zuen zerrenda –hiru oriotar ere tartean ziren– aurkeztu eta ordezkari bat lortu zuen. Bi agintalditan izan da Jesus Rodriguez zinegotzi Udalean; baina azken hauteskundeetan ez zuen kargua berritzea lortu.

KARKARAK oraingo ikuspegitik ordura begira jarri ditu gaur egun, Orioko Udalean ordezkari izateko hiru udal taldeak: Bildu, EAJ eta Orain.

PSE-EEkoengana ere jo genuen, beren iritzia eskatzeko; baina nahiago izan dute ezematea.

Priederen senideengandik ere erantzun bera jaso dugu.

Urtero egin ohi duten bezala, aurten ere, larunbatean, martxoaren 24an, lore eskaintza egingo diote lagun, senide eta alderdikideek Juan Priede zenari Orioko hilerrian 12:00etan.

“Juan Priedek 69 urte zituen eta jubilatuta zegoen aitona zen.

Erretiroa familiarekin eta lagunekin lasai pasatzera mugatu zitekeen. Baina, horren orde, bere ideia eta pentsamoldearekin koherentziaz eta arduraz jokatu eta Orioko zinegotzi izatea onartu zuen”

—Orioko EAJ

“Udal ordezkaria izan zen eta ordezkari izateko horrek bizitza guztiz baldintzatu zion. Orion inoiz ikusi ez genuena onartu zuen Juanek:

herriko zinegotzi bat bi bizkartzainekin”

—Orioko EAJ

“Juan Priedek urteetan Orioko Udalean egindako lanak errespetua merezi du. Zer esanik ez, Juan Priederen familiak.

Enpatia ariketa bultzatu behar dugu hilketaren urteurrenean”

—Orioko Bildu

“Ez dugu hitz egiteko ikararik: horrek askeago egiten gaitu, horrek ziurtatuko du adiskidetzeari eta Juan Priederena bezalako hilketak berriro ez gertatzea. Alde guztiek eragindako mina onartu behar dugu eta min horrekiko errespetua adierazi behar dugu”

—Orioko Bildu

“Langilea, lasaia, irekia, ezkertiarra, frankismoaren kontrako militantea, udaleko talde guztiekin akordioetara iristen jakin zuena, Orio bihotzean zeramana eta sekula inori kalterik egin ez ziona..

Orioko herriarentzat, harro egoteko moduko bizilaguna zen”

—Orain Taldea

“Orioko ezker abertzaleak zer esango zain geunden gehienak.

Askok eta askok ginen beren gaitzespena espero genuenak, baina ez zen gertatu. Ez zuten esan gaizki iruditzen zitzaizkien ere. Oso bestelako jarrera izan zuten, bestaldera begiratu eta isilik geratu”

—Orain Taldea

10 urte Juan gabe

2012ko martxoaren 21ean 10 urte bete dira Orioko Udaleko zinegotzi Juan Priede ETAk erail zuela. 10 urte, oriotarrek herrian lurrikara bat gertatu izan balitz bezala gelditu ginela. Ezin sinistu.

Gizakia ez da inoiz horrelako zentzugabekerieta ohitzen, ezinezkoa da. Baina Juani, herriko zinegotzi bati, gertu-gertukoari, hori pasatzeak sentimendu guztiak astindu zituen.

Juan Priedek 69 urte zituen eta jubilatuta zegoen aitona zen. Erretiroa familiarekin eta lagunekin lasai pasatzera mugatu zitekeen. Baina, horren orde, bere ideia eta pentsamoldearekin koherentziaz eta arduraz jokatu eta Orioko zinegotzi izatea onartu zuen.

Herriaren alde lan egitea erabaki zuen, nahiz eta horrek bere eguneroko bizitzan askatasuna mugatu. Udal ordezkaria izan zen eta ordezkari izateko horrek bizitza guztiz baldintzatu zion. Orion inoiz ikusi ez genuena onartu zuen Juanek: herriko zinegotzi bat bi bizkartzainekin. Hala ere, erantzukizuna beldurra gainditu zuen.

Haren erailketaren 10. urteurren honetan, ezin dugu egun hau besterik gabe pasatzen utzi. Juan Priederen erailketa berriz ere arbuia behar dugu. Juanek Orioko herriaren alde egindako lana gogoratu eta eskertzea tokatzen zaigu.

Juan zinegotzi izan zen, udalbatzar eta batzordeetan aktiboki parte hartzen zuen. Udal ordezkari izateagatik izan zen mehatxatua eta eraila. Ordezkari izate hori gauzatzen den tokian gogoratu nahi dugu Juan: udalbatzarren aretoa. Udalbatzarretan defendatzen direlako ideiak eta pentsamoldeak.

Horregatik guztiagatik, udalbatzar batean Juan Priederen lana eta defendatu izan zituen balioak gogoratuko dituen mozi bat onartzea espero dugu. Familiari babesa eta elkartasuna ere eman nahiko genioke. Juanek egindako lana batetik eta, bestetik, urte hauetan guztietan izan duten errespetuzko jarrera eskertuz.

Juan Priederen izena eta haren oroitza pena inongo diskurtso politikotik at mantentzeko ahalegin berezia egin dute senitartekoek. Guk ere familiaren nahia errespetatu nahi dugu, Juan Priederen lana gogora ekarriz eta bere erailketaren zentzugabekeria berriro salatuz.

Herrian izandako gertakari oso nabarmena izan zen, gure egunerokotasunean gogoan izan behar duguna. Juan Priede berriz gogoratzeko beste 10 urte ez pasa behar izatea espero dugu.

Orioko EAJ

Autokritika bidean jarrita

Bildu osatzen dugun norbanako eta alderdiek ibilbide politikiko ezberdina dugu. Juan Priede hil zutela hamar urte bete diren honetan irakurketa bateratua egin dugu taldekideok. Denok autokritika egiten ari gara eta bide horretan sakondu behar dugula uste dugu Orioko Bildun. Norbere jarreraren errepaso historikoa egitea ezinbestekoa da, mahaia- ren beste aldean jarriko denari bere akatsak onartu ditzan eskatzeko. Guztioi, alde bateko biktimekiko erakutsitako sentsibilizazio maila falta zaigu beste aldeko biktimekiko. Pauso hori ematea litzateke zauriak sendatzeko konpromiso eta borondate egiazkoena.

Juan Priedek urteetan Orioko Udalean egindako lanak errespetua merezi du. Zer esanik ez, Juan Priederen familiak. Enpatia ariketa bultzatu behar dugu hilketa- ren urteurrenean, biktima guztien eta beren familien saminari aterabidea emateko balioko duelakoan.

Biktimak asko dira, modu askotarikoak. Ez dugu ahanzten eta ezkututzen urte guzti hauetan gertatu dena. Eta ez dugu hitz egiteko ikararik: horrek askeago egiten gaitu, horrek ziurtatuko du adiskidetzeara eta Juan Priederena bezalako hilketak berriro ez gertatzea. Alde guztiek eragindako mina onartu behar dugu eta min horrekiko errespetua adierazi behar dugu.

ETAren jarduera amaitu arren, bakea eta adiskidetzeara eraikitzeke dago oraindik.

Orioko Bildu



Juan Priede Pérez, 10 urte bera gabe

Dagoeneko hamar urte pasa dira ETAk Juan Priede hil zuenetik. Kafetxo bat hartzen ari zen bitartean, bizkarretik eta buruan tirokatuz erail zuten 69 urteko gizona.

Lerro hauen bitartez, bera, pertsona, gogoratu eta omendu nahi genuke: langilea, lasaia, irekia, ezkertiarra, frankismoaren kontrako militantea, udaleko talde guztiekin akordioetara iristen jakin zuena, Orio bihotzean zeramana eta sekula inori kalterik egin ez ziona. Orioko herriarentzat, harro egoteko moduko bizilaguna zen Juan, dudarik gabe; pertsona ona.

Momentu latzak bizitu genituen herrian; benetan gogorra izan zen. Nola zitekeen? PSOEko zinegotzia zelako? Hori al zen bere bekata? Ezin genuen sinetsi. Ez zegoen inolako justifikazio posiblearik, eta sentimendu ilunez gainezka zegoen herria: tristura, amorrua, nazka, lotsa, inopotentzia...

Orioko ezker abertzaleak zer esango zain geunden gehienak. Asko eta asko ginen beren gaitzespena espero genuenak, baina ez zen gertatu. Ez zuten esan gaizki iruditzen zitzaienik ere. Oso bestelako jarrera izan zuten, bestaldera begiratu eta isilik geratuz. Nolatan argudiatu daitezke arrazoi politikoak, horrelako gertaera baten aurrean? Askatasuna defendatzen duen pertsona batek, nolatan onartu dezake horrelako basakeria?

Gizatasuna eta errespetuaren ondorena izan behar du politikak eta ez alderantziz.

Zorionez, hamar urte hauek ez dira alferrik pasa eta badirudi orain bakearen atarian gaudela. Urte askotan jasandako egoera horrek, ordea, gorroto eta haserre gehiegi utzi dizkigu herrian, eta lan handia dago oraindik egiteko guztion artean. Alde batetik, egin diren akats larriak aitortu beharko dira eta, bestetik, pertsona guztien eskubide guztiak gauzatzen ahalegindu.

Alferrikakoak dira negarraldi baten malkoak ez badute lurra bustitzen eta lur horretatik ez bada ezer sortzen.

Armak ez hemen ezta inon ere. Benetako bakea da gure desioa; bakea Euskal Herrian eta bakea Orion.

Orain

(Orioko Aukera Independentea)

Kaixo, polita!

Kaixo, polita! Argala, luzea eta ilehoria zara. Atzo legginak eta takoidun zapatak zenituen jantziak. Igo-gailuan topo egin zenuen mutil hankaluzea nauzu. Bai, zuk ere nik sentitu nuena sentitu zenuen. Sua.

Zu hobeto ezagutzea desiratzen dut. Ez dut hemen nire telefono zenbakia idatziko. Ez zait egokia iruditzen. Baina bada-kizu non lan egiten dudan. Utzidazu mezu bat, mesedez. Zain izango nauzu.

08:00. Musto aurpegi konpletoa geratu zaidana ostiral goiz honetan. Lan egiten dudan eraikineko atean topatu dut mezua. Segidan nire hankei begiratu diet. Ea, gutxienez 30 zentimetro gehiago behar ditut luze kategoria konkistatzeko eta, gainera, nire eguneroko uniformetik kanpo daude takoiak. Katxis! Nire burua baztertzea beste erremedio-rikez dut.

09:08. Bulegoz jositako eraikineko sarrera bakoitza, eskaileretako txokoak, tabernako atea... bazter guztiak bete

ditu paperez maitale desesperatuak. Tantaka-tantaka lanera datozenek bi minutuko tarte hartu dute ohartxo irakurtzeko. Era guztietako keinuak haien aurpegietan. Txorimalo aurpegi dezente, parre txikiak, bada emozioz negarrez hasi denik ere.

09:31. Hasi da ehundaka pertsonak osatu duen patruila martxan. Bertan lan egiten dugunak zelatari bihurtu gaitu sarrerako oharra. Gai bakarra jorrazten da pasilloetan. Asteburuaren atarian, maitasuna helburu.

11:12. Kafe ordua da eta amodioaren komando solidarioak taberna hartu du egoitza nagusizat. Tabernariak aditu

Txorimalo aurpegi dezente, parre txikiak, bada emozioz negarrez hasi denik ere

gisa deklaratu du gure aurrean. %95eko ziurtasunez esan omen dezake hankaluzearen ametsetako neskata nor den. Hala ere, ezin omen dezake argitu ilehori kaskamotzaren izenik. Kafearen azken hondarrak amaitzeaz gaudenean informazio gehiagorekin etorri zaigu.

11:27. Epaia: ezkondua eta bi umeren ama.

11:28. Trantze batean utzi gaitu azken informazioak. Tabernaria erratu egin ote da? Horrela ez bada, zoriontsua ote da emakumea? Ezkontzaz kanpoko maitale baten bila ote dabil? Mezuaren autoreak amesgaiztora bultzatuko duen informazioa ote da?

14:47. Gurasoenean bazkaldu dut. Arrazoi du aitak. Jotako mandoa baino okerrago dago jendea. Baina sei orduz mamu erraldoiari irabazi egin dio ipuinak.

16:30. Kultur Etxeko azken pisura igo naiz arnasestuka. Miren, zer berri? Kri-siari aurre egiteko literatura bila nator. Dezente beharko dut.



Sistema aldaketa?

Langabeziaren mamua eta horrek gizartean sortzen duen gatazka lagun arteko elkarrizketetan, lankideen artean, erakundeetako bilereetan edota komunikabideetan gai nagusi bihurtu dira azken bi-hiru urteetan. Izan ere, 2007an krisi ekonomikoak eztanda egin zuenetik kolokan jarri da mendebaldeko gizartearen muina izan den bizimodu kapitalista, herritarrek enplegurik izan ezean ezinezkoa baita azken 15-20 urteetan bogan izan diren kontsumo ohiturei eustea.

Gazteen langabezia %40a baino altuagoa izatea herrialde batek porrot egin duenaren seinale dela irakurri nuen aurrekoan analista ekonomiko bati egin zioten elkarrizketa batean, eta guztiz ados nago baieztapen horrekin. Gainera, askotan beren burua zuritzeagatik, gazteen langabeziaren arazoa makilatzen duten politikoak ere porrotaz kontziente direla antzematen da azken aldan. Erakunde eta agintariak 2007ra arte bizi izan dugun oparotasun ekonomikora itzultzeko ezartzen ari diren plan eta erreforma bortitzak dira horren adibide; epe motz eta ertaineko aurreikuspenak egiten dituzte, ordea, eta arazoaren muina alde batera uzten dutela uste dut.

Gure etorkizuna mundua beren interesen arabera gobernatzen duten politikari, bankari eta aberatsen eskuetan uztea ideia ona al da? Askotan iruditzen zait ekonomia suspertzeko egiten dituzten planak XIX. mendeko lan merkatuarentzat diseinatutakoak direla eta ez etengabe aldatzen ari den XXI. mendeko gizartearen neurrira eginak.

Alde batetik, niri iritziz, garrantzitsua da kontuan hartzea garapen bidean dauden he-

rrialdeen atzean dagoen fenomeno. Azken mendean Ameriketako Estatu Batuek eta Europak bildu dute munduko aberastasunaren gehiena eta horiek zuzendu dute mundua. Orain, hegemonia aldaketa bat gertatzen ari da eta Txina, Errusia edo Brasil moduko herrialdeetan pilatzen ari da aberastasuna. Nahiz badugu ere, datozen hamarkadetan orain arte munduan izan dugun posizio pribilegiatua eta aberastasuna eskuz aldatuko da eta orain arte izan ditugun aldeko baldintzak beste hainbatekin konpartitu beharko ditugu. Pastela gehiagoren artean banatzen denean, bakoitzari gutxiago tokatzen zaiola presente izan beharko genuke.

Horrez gain, Euskal Herrian bizi dugun lan egoera ere aztertzea dela uste dut. Orain dela hilabete gutxi azken urtean lan bila atzerriara joan diren gazteen inguruko erreportaje bat idatzeko Marta Luxan Soziologo eta Demografian doktorea elkarrizketatu nuen eta hark esan zidanak begiak ireki zizkidan: *Euskal Herrian 80. hamarkadako krisi ekonomikoak eta langabezia arazoek gogor kolpatu zuten gizartea. Horren aurrean, jendarteak inkontzienteki erabaki zuen ikasketak luzatzea beharrezkoa zela haur eta gazteak helduak zirenean prestatuagoak egon zitezen; hau da, uste zen gazteak ondo prestatuta egoteak etorkizunean langabezia gutxituko zuela.* Gaur egun, goi mailako ikasketak dituzten milaka gazte daude Euskal Herrian; lana egon bada, baina Luxanek uste du ez dagoela hemen go gaztediak dituen perfiletara moldatutako enplegurik, *ez baitago goi mailako ikasketak dituzten guztientzat nahikoa enplegu. Horregatik, gero eta zailagoa da gazteentzat lana aurkitzea.*

Egungo testuinguruan, gazteek beren ikasketak eta nahien arabera lana aurkitzeko dituzten arazoak etsipena sortzen dute herritarren artean, eta horrek behin eta berriz egoera gogor horretatik alde egiteko bidea zein den hausnartzera garamatza. Artikulu hau, esaterako, etorkizun beltzean kolore pixka bat aurkitzeko beste saiaketa bat besterik ez da izan.

Nire honetan
Ana G. de Txabarri

Atez ate datoz

Aldaketa eta kontrako iritziak eguneroko jasotzen ditugu etxean eta denetik ari gara aditzen. Halako urduritasun puntua ere antzematen zaie gehieni: buruak agindutakoak baino gehiago, soinean beheragotik sortutakoak entzun behar baititugu askotan. Zikinkeriak gainezka egiten digu.

Besterik ez bada, bi gauza ikusten ditut nik garbi. Bate-tik, sortzen dugun zabor guztia guk garbitu behar dugula, ezin diogula inori eskatu gure zakarra hartzeko. Bestetik, ezinbestekoa dela denok hondakinak bereiztea, derri-gorrezkoa; ezin duela horrek aukerako zer bait izan, batzuek bai eta besteek ez, denok sortzen dugulako basura. Oinarri-oinarrizko gauza dira biak zintzo egin nahi badiogu aurre arazoari eta aterabide duina eman.

Atez atekoa da ondoen erantzuten diona horri guztiari, nire ustez: beharrezkoa da denok bereiztea, berrera-biltzea eta birziklatzea, eta oso hondakin gutxi -%20-geratuko litzateke bestela tratatzeko.

Seguru nago, badaudela moduak eta bideak hori ondo egiteko, neurri handi batean itsuskeria eta narraskeria saihesteko ... baina ezin dugu ahaztu kirasduna eta zikina dela gaia bera eta orain arte daukagunak ez duela ez itxura ezta usain hoberik ere.

Gure etorkizuna mundua euren interesen arabera gobernatzen duten politikari, bankari eta aberatsen eskuetan uztea ideia ona al da?



Igo zaitoz haize borrielara!

Galerna I

943890416-677149334
galerna1orio@hotmail.com



bodegas ERRASTI, S. L.

Ekualderako banatzailea:
Zudugarai, Getariako txakolina
lagares, ardo gori natura
Bodegas Gallur, Señorio de Laurgain
Gallur eta Ardanategi,
Arabar Urriusako ardoak

Bidea Gallur, 46-13810 • 943 83 01 66 / 03 63 62 • E-posta: bodegaserrasti@telefonos.net

GARMENDIA
IMMOBILIARIA - AHOLKUNTZA - ARREGLUAK

Ibai Ondo, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

Kinkladenda - Una arropa
argine
www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

75eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogitarako mundialak

ABESLARI KALEA 4
Tel: 943 83 10 57

ARISTERRAZU
jafetxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Gabon
TABERNA
plater konbinaluak pintxoak

Tfnor: 943 83 06 09

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7
Tlfax: 943 83 51 86

20809 Aia-Orio
Carroceriasazkue@hotmail.com

ARIDATZA modak

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 86 • 20810 ORIO

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna
eta merkea ☒

Tfnor: 943 83 59 00

TANATORIO ZARAUTZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zehitu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Alderoko zerbitzuak
* Belatorio gelak
* Koroak, eskalak, tranitzioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 89 48 17 / Fax: 943 89 48 48
e-mail: harnespiluharnespilunet

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidasuak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 83 28 93 / 83 08 80, Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

AKOBE ACTIVA
JUAN ALBIZU

Etiketresna elektrikoak
sukaldeko altzariak

Abeslari, 5 - 20810 ORIO
Tel/Fax: 943 83 12 49 / albizu@activahogar.com

Oreka energetikoa
Bachen loreak

betikuntza, nahigaketa, sere
aldaketak, erretatuta, adrengorak

utzi alde batera
emozio negatiboak

Orioko Energetikoa
Tel: 943 83 72 91

Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
FATXADEN ERABERRITZEAK
IGOGAILUEN PROIEKTUAK
GREMIO KOORDINAKUNTZA
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 8, 5.BULEGUA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731 722

Gaia emanda

Beharrezkoa al da atez ateko sistema Orion?

Atez ateko sistemari buruzko kezka dabil kalean. Hori dela-eta, EAJrengana eta Orain taldearengana jo dugu, iritzi eske.

Atez atekoa ez da Zero Zabor

Orioko EAJk argi dauka Orion gizar-teari birziklatzearen onurak erakutsi behar zaizkiola. Helburua oriotarrok gero eta gehiago birziklatu dezagun da, eta lan horretan daramagu azken urteetan informazioa eman ez herriarrei eta, ahal dugun tamainan, eredu izan nahian eguneroko bizitzan ahal den gehien birziklatzeko orduan.

Baina birziklatzeko moduari dagokionez, ez gara atez atekoaren aldekoak. Gai honetaz, herriarrei gauzak garbi esan behar zaizkie, gezurrik esan gabe.

Atez atekoak ez du zaborren arazoa konpontzen. Okertu egiten du: kutsakorrakoa da, zikinakoa, gure kale eta etxe atari guztiak zaborrez betetzen ditu eta, gainera, askoz garestiakoa da oraingo sistema baino.

Atez atekoarekin jasotzen den guztia ezin da birziklatu.

Jasotzen den zaborraren %30etik gora ezinezkoa da birziklatzea eta zaborregira bota edo erre egin behar da. Ez dago beste irtenbiderik, ez dago beste MODELORIK Europa osoan. Alemaniako berdeek demostratu dute –Europar ingurumenarekin konprometituenetakoak eta zero zabor filosofiaren sortzaileak– tratamendua jaso ondoren, erretzea dela gutxien kutsatzen duena.

Atez atekoa ez da Zero Zabor.

ZIA

Orioko EAJ

Atez atekoak ez du zaborren arazoa konpontzen. Okertu egiten du: kutsakorrakoa da, zikinakoa, gure kale eta etxe atari guztiak zaborrez betetzen ditu eta, gainera, askoz garestiakoa da oraingo sistema baino.

Beharrezkoa al da atez atekoa Orion?

Ez gara galiziarrek, ez gara Galizian bizi, baina ezagutuko duzue zuen inguruan bizi den galiziarren bat eta galdera bati beste galdera batekin erantzuteko duten abileziaz baliatuko gara oraingoan.

Beharrezkoa al da erraus-tegia Zubietan? izan zitekeen galderaren erantzuna edo izenburua bera. Izenburu zirikatzailak asko estimatzen dira kazetaritzan eta, aukeratzera, baliteke hondakinak atez ate jasotzea dela eta sortu den matraka mediatikoak zerikusirik izatea.

Begi bistan ditugu ingurumenaren arazo guztiak: klimaren aldaketa, uraren eta airearen kutsadura, biodibertsitatearen gutxitzea, kalteak, eta abar. Arazo horien guztien atzean dagoena dugun bizimodu kontsumista da.

Hondakinen arazoetan ingelesez aipatzen diren hiru Rak *Reduce, Reuse, Recycle* euskaraz MBB bihurtzen zaizkigu *Murriztu, Berrera-bili, Birziklatu*. Laugarren R bat ere erabiltzen dute *Responsability*, euskaraz *ardura* dena: herriarrena, politikarrena, enpresariarena...

Zaborra tratatzeko moduan asko aurreratu da, bai-

na oraindik badaukagu zer ikasi eta hobetua. Kontuan izan behar dugu orain arteko edukiontzien sistemaren oinarria herriarrek nahi duten moduan erabil ditzaketela dela, borondatezkoa dela: nahi baduzu, bereizi; nahi ez baduzu, ez.

Hemen, orain, informazioaren beharrean gaude. Beste baterako utziko dugu, unea eta tokia izango dugulakoan, magoek erabiltzen duten kearen efektu miresgarrietaz hitz egiteko eta baita zerura txistua botatzen ibiltzen denari zein ondorio penagarriak gertatzen zaizkion azaltzeko.

XXI. mendean sartuta gaude eta gizarte eramangarri batean bizitzeko ideia printzipalenetako hau izango litzateke: planeta mugatuak ematen dizkigun baliabideak ahalik eta ondoen aprobetxatuz izango dugula etorkizun duina.

Brusela, Belgikako hiriburu eta hiri handiena da eta baita Europako Batasuneko egoitza administratibo nagusia ere. 1.200.000 biztanle inguru ditu. Atez ateko sistema erabiltzen du. Beharrezkoa al da atez atekoa Bruselan?

Galdera hori etxetik etxetik aukera izango dugu beranduago. Oraingoan hausnarketa prozesuan dagoen gaia da. Beraz, gure triptikoa zetorren galdera ez dugu oraindik erantzun eta, hortaz, ez dizuegu zuei ere dagoeneko eskatzen.

BOGA

Orain taldea

Atez ateko sistema erabiltzen du Bruselak. Beharrezkoa al da atez atekoa han?



Bederatzigarren diskoa du honekin Mikel Markezek. J. ARAMENDI

Hiri batek sortu dezakeen malenkonia

Kritika Mikel Markez

Abeslaria, 'Hiri hartan izan zen' obra 2011-n kaleratu zuen Elkarrekin. 12 abesti eta 52 minutuko iraupena du diskoak.

Hiri hartan izan zen deitu du Mikel Markezek bere azken diskoa. Hiri batek oroitzapenak sortzen dizkigu sarri gure ganbaretan, eta halako bidaia bat esperimendu dezakegu disko hau entzuten dugunean.

Diskoaren sarrera gozozkoa da. Uxue Alberdi bertsolariak eta Eñaut Elorrieta honen bikotekide eta Ken 7 taldeko abeslariak beren aho-

tsak jarri dituzte Markez zerbitzura, eta hiruren aho-tsak batuta sarrera apaina eman diote diskoari.

Bigarren abestira salto egin eta goxotasunak jarraitzen du, batez ere Arkaitz Mineiren mandolinak duen tin-break emana. Hitzek jostakera ona da, baina abestia errepikakorra egiten da bukaerarako.

Hiriko kaleetan aurrera egiten dugun bezala, hiri handien pluralitatea ere nabarmentzen da abestietan. Bossanova eta tangoak entzun daitezke, kantu tristeak eta alaiagoak...

Buenos Airesko euriak abestian, Aian bizi den

Eduardo Baranzanok jotzen du gitarra, eta gitarra klasikoak jotzen maisua dela erakusten du.

Atzerriko hizkuntzan abestera ere animatu da Markez oraingoan, katalanez hain zuzen ere. Abesti bera euskaraz ere abesten du, *Gizon bat / Un home* izena eman diona.

Jean Phocas izan da teknikaria eta soinu ederra lortu du. Dena dela, eta kritika txiki bat egite aldera, ahotsetan afinazio falta nabaritzen da abestiren batean eta enpate falta ere bai besteren batean. Hala ere, taxuzko diskoa da.

IKER GURRUTXAGA

Ikasleak idazle
Martin Arruti

Goiko Kaleko igogailua

Goiko Kalen dagoen igogailua erabiltzen dugunok badakigu ederki asko zenbat arazo ematen dituen. Hain zuzen ere, Danbolin musika eskola aldean dagoenari buruz ari naiz eta esan beharra dut egunero erabiltzen duten emakume, gizon, ume eta pertsona gehiagori errespetu falta bat iruditzen zaidala.



Izan ere, egunero, edadetutako aiton-amona askok erabiltzen dute igogailua eta baita umeak dituzten ama edo

aitak beren *kotxe-sillekin* ere.

Egia esan, igogailu hori mesede ikaragarria da inguruan bizi direnentzat, baina matxuratuta egoteak hainbat eta hainbat pertsonari herria zeharkatu behar izatea eta eliza aldean dagoen igogailua erabili behar izatea eragiten diete.

Hori ez da batere erosoa, edo beste aukera bat litzateke eskailera guzti horiek igotzea. Horrekin guztiarekin esan nahi dudana da, igogailu hori berriz konpondu beharko litzatekeela; edo hau matxuratzeko duten pertsonen eskatuko nieke, mesedez, bakan uzteko igogailua eta errespetua izateko igogailu hori benetan behar duten pertsonenakiko.

Goizeko
KAFETEGIA
☎ 943 83 28 55
Ara. Lekuak 33 behar. ORIO
Autobus parada ondoan

azkue
Tf: 943 13 04 38

Allianz
Marigre Zaldúa
aseguru agentea
Ibil Ondo. 10 bene oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 62
e-mail: zaldua@allianz.es

edutegia
ANTILLA
julekka
Mozart 1002 - TEL. 910 08 20 00



Herri osoa gelditzen zen umezurtz, itsasoak arrantzaleak kentzen zizkionean. ARTXIBOA

Orioko umezurtza (eta II)

Oroimenaren kutxa

Orioko herriaren historiako hiru une, hiru urte: 1925, 1934 eta 2009. Hirurak istripu tragiko batek lotuak:

1925ean, Laureano Oliden Oliden, orduan 35 urteko arrantzale gaztea, ito egin zen Orioko barran. Laureanoaren emaztea, Maria, haurdun zegoen. Etxeko balkoian zela jakin zuen egun hartan ere barran zerbait latza gertatu zela, aldameneko balkoiko andreak esanda. Gero jakin zuen itotako gizonetako bat etxekoa zuela: senarra. Bost hilabetera, neskatar bat jaio zen, Ramonita, etxeko bosgarrena.

1934an, naufragiotik bederratzirter, Fabian Loidi poeta oriotarrak olerki bat idatzizuen, 1925eko naufragioan umezurtz geratu zen mutiko bat gogoan zuela. Fabian bera ere umezurtza zen, etagai horretan bereziki sentibera. *Orio'ko umezurtza* izendatu zuen poema. Zarauzko V. Eusko Olerti egunean, 1934ko ekainaren 10ean, eusko poemetan lehen saria irabazi zuen poesia harekin. Loidik tragedia arte bihurtu zuen, gertaera hura horrelakoxea izan baitzen, tragikoa. Aitzolek honelako laudorioak eskaini zizkion lan sarituari, 1934ko euskarazko olerkigintzari egindako errepasoan: *Gaiez bikaina eta irudipen aratzez aberatsa bada, badu beste edergarririk ere olerkari honek, bertsoen jolas-*

kerabihurri eta harrigarria. Apaiz poeta hark liburu bat eta bakarra argitaratu zuen: txiruliruka; 1977an izan zen. Liburuko lehen olerkia da *Orio'ko umezurtza*.

2009an, abenduaren 22ko arratsean, Orioko kultur etxean Fabian Loidiren bizitza jasotzen zuen biografia-liburua aurkeztu genuen. Seguru asko, ekitaldian egondako inork ez zuen jakingo nor zen Loidiren olerkiko umezurtza. Aurkezpenera baino ordu batzuk lehenago, Patxi Oliden Danbolin kultur etxean izan zen, hunkituta, begiak bustita. Bera zen liburuko umezurtza, Laureano eta Mariaren semea, Ramonitaren anaia.

[IÑAKITURAIN]

» JAIOTAKOAK

- Ekai Larrañaga Urkizu, Orion, martxoaren 10ean.
- Unax Kaperotxi Oliden, Orion, martxoaren 4an.
- Carla Sanmarful Altuna, Orion, martxoaren 2an.

» EZKONDUTAKOAK

- Ainhoa Pozo Lizaso eta Roberto Vega Molina, Orion, martxoaren 17an.
- Mikel Iribar Esnal eta Cristina Fernandez Carrera, Orion, martxoaren 12an.
- Isabel Ripa Chipi eta Xabier Olaizola Feito, Orion, martxoaren 10ean.
- Joseba Iriarte Aizpurua eta Miren Unanue Urdangarin, Orion, martxoaren 3an.
- Jaione Otamendi Loidi eta Egoitz Manterola Sarasola, Orion, martxoaren 3an.

» HILDAKOAK

- Lorentzo Manterola Begiristain, martxoaren 19an, Orion, 80 urte.
- Jose Migel Britt Aierbe, martxoaren 19an, Orion, 62 urte.
- Francisco Alberdi Arruti, martxoaren 17an, Orion, 65 urte.
- Jose Luis Perez Uzkudun, martxoaren 15ean, Orion, 51 urte.
- Jose Antonio Aduriz Etxeberria, martxoaren 10ean, Orion, 86 urte.
- Crescencia Balerdi Zabala, martxoaren 7an, Orion, 82 urte.

Automóviles ZARAUZ

RENTAL ZARAUZ

943 13 13 50

BERME Aholkularitza S.L.

2012ko urteko lehen aholkularitza

• Aholkularitza finantziaria

• Aholkularitza fiskala

• Aholkularitza enpresa

• Aholkularitza enpresa

• Aholkularitza enpresa

• Aholkularitza enpresa

943 13 13 50

BARAKA

estilo berria

943 13 13 13

Carmen eta Txomin

ARRANDEGIAR

943 13 13 13

“Arraina erostea arrisku handiko negozioa da askotan”

Joakin Zinkunegi

Lonjako arduraduna

Arrantzalea, kamio gidaria... eta orain lonjako arduraduna da Joakin Zinkunegi oriotarra. Getarian egiten du lan, Oliveri enpresarentzat. Arrantzalearen eta merkatuaren arteko bitartekari lanak ongi ezagutzen ditu. Sareko arrainaz aritu gara.

IKER GURRUTXAGA

Erosleak beti izan du dirua erraz irabazten duenaren fama.

Baina erosleak asko arriskatzten du sarritan. Egia da askoren begitarako diru erraza dela, eta ez da horrela. Erosteke momentuan arrantzaleak arraina erakutsi eta enkantean erosi behar da lehenik eta gero haren gainean aplikatu irabazia. Irabazi hori kiloko ez da izugarria izaten. Ez, behintzat, dituen gastu denak kontuan hartzen badira.

Nolako gastuak izaten ditu bada?

Izotza, argindarra, garraioa, langileak, Kofradiako tasak, kaxak... gastuak asko dira eta ez nolanahikoak. Arraina, gainera, egun batetik bestera prezioz aldatzen da guztiok dakigunez, eta bezperan hurrengo biharamunean baino garestiago

erosten bada, akabo. Irabaziak lortzea oso zaila izaten da halakoetan. Eta ez da gutxitan gertatzen. Gero, gainera, ez du segituan jasotzen bezeroen ordainketa, eta hor diru dezente izaten du blokeatuta sarritan.

Hala ere, zuen enpresak ez dira arrantzaleen begikoak.

Halaxe da, bi negozio dira eta biek irabazi behar dute. Ni lonjako arduraduna baino ez naiz, eta nire nagusiari eta enpresaren bezeroei kalitate gorena eta behar duten neurria eskaini behar diet produktuan. Arraina beti ez da punta-puntakoa izaten, beste batzuetan zakar asko izaten du tartean, gero lermak izaten ditu arrainak... hori guztia ulertu behar du arrantzaleak.

Baditut arrantzaleak eta patroiak diren lagunak, eta haiek askotan nigana jo-

tzen dute *lapurretan* egiten diegula esanaz. Baina berek ere badakite *trampa* egiten. Tentsio handiko momentua izaten da salerosketako une hori. Dena dela, arrantzaleek eroslearekiko badute abantaila nabarmen bat; astean astekoa kobratzen dutela.

Kalitatea aipatu duzu.

Eta hemen zortea dugu horretan, hemengo arrainak kalitate ona baitu orokorrean. Guk gero hartu, sailkatu, eta bezeroari bidaltzen diogu. Askotan bezeroek deskontuak egiten dituzte, eta hori ez dakite herritarrek. Eta horregatik esan dut azpijokoarena. Nik ulertzen dut arrantzaleen egoera ez dela duela urte batzuetako bera; baina, azkenean, kate bat gara eta denok behar dugu ondokoaren lana eta laguntza.

“Ulertzen dut arrantzaleen egoera ez dela duela urte batzuetako bera; baina, azkenean, kate bat gara eta denok behar dugu ondokoaren lana eta laguntza”

Baina zuentzako hemengo arrainarekin nahikoa al da?

Ez, kanpotik ere erosi behar izaten dugu. Baina hemengo kanpora ere bidaltzen da. Guk Kantabriatik, Galiziatik, Portugaldik, Asturiastik, Frantziatik, Italiatik... ekartzen dugu arraina. Baina gure arraina, Euskal Herriko arraina Bilbo Gasteiz, Madril,artzelona, Valentzia, Paris, Ingalaterra, Erroma, Sizilia, Tunisia, Grezia... bezalako tokietan jaten da. Arrantzatzen den guztia saltzeko beste bezero duen merkaturik ez baitago gurean.

Zuen katearen bukaeran arrandegiak daude, besteak beste.

Hala da, eta ez dute meritu makala. Arraina garesti dagoela esaten dugu, baina arrandegien jabeek dituzten gastuak eta kontuan hartuta, ez da astakeria bat. Zenbaki gutxi batzu aski dira konturatzeke.

Krisia, kuotak... nola dago zuen etorkizuna?

Sareko arrantzan ikusten dut nik etorkizuna. Eta bapore txikiagoetan. Orain daudenek gastu asko sortzen dute eta, hala, kontsumoa gutxitu. Erosotasun gehiago ere izango du arrantzaleentzat. Hortik aurrera, ikusi beharko dugu.



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokatzeko

■ Eusko Gudari kalean, Kultur Etxe parean, etxea alokagai. Tf.: 647 642 121.

Saltzeko

■ Kale Nagusiko 25. zenbakian etxebizitza berria salgai. Sukalde-jangela, logela, bainugela eta tras-telekua ditu. Altzariekin. 195.000 euro. Tf.: 616 749 324.
■ Mutilarentzat jaunarteko jantzia salgai. Marinel arropa zuria. Neurria: 11. Tf.: 620 539 945.
■ Michelin energy 175/70 R13 bi gurpil-azal salgai. Pareta 95 eurotan. Merkatuan 63 euro bakoitza. Oso egoera onean, frogatu beharrik gabe, ia berri-berriak. Tf.: 696 273 435.

Lan eskaera

■ 19 urteko neska, magisteritza ikaslea, udaran haurra zaintzeko prest. Goizez zein arratsalde. Tf.: 688 695 648 (Ainhoa).
■ Emakumea adineko edo umeak zaintzeko prest. Tf.: 637 967 705 (Xochilt).
■ Neska euskaldun oriotarra lanerako prest: garbiketaren lanetan, ostalaritzan... Tf.: 665 455 636.
■ Aiako mutila edozein lanetan aritzeko prest: garbiketaren lanetan, baserrian... Tf.: 615 233 534 (Iban).
■ Goi mailako ingeniariak LH, DBH eta Batxilergoko eskola partikularrek emango lituzke. klase partikularrak orio@gmail.com edo Tf.: 662 487 964.

■ Neska oriotarra etxeak edo eskaratzak garbitzeko prest. Tf.: 676 441 327.
■ Gizonezko etorkina adinekoak zaintzeko eta bestelako lanetarako prest. Esperientzia eta erreferentziak. Tf.: 680 234 095. (Abraham).

Lan eskaintza

■ 18 urteko mutil kolonbiar etorriberriak euskarazko klase partikularrek hartuko lituzke, orain hasi eta uda bitartean. Ahal bada, Orion bertan. Tf.: 666 116 641 (Damian).
Prezioak-eta adosteko.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
24	05:22 eta 17:36	11:24 eta 23:38	
25	06:52 eta 19:06	12:55 eta	
26	07:22 eta 19:36	01:11 eta 13:26	
27	07:53 eta 20:08	01:45 eta 13:59	
28	08:27 eta 20:45	02:21 eta 14:36	
29	09:08 eta 21:30	03:02 eta 15:19	
30	10:02 eta 22:33	03:54 eta 16:16	
31	11:20 eta 23:58	05:03 eta 17:31	
01	12:50 eta	06:24 eta 18:51	
02	01:20 eta 14:02	07:38 eta 19:59	
03	02:24 eta 14:57	08:36 eta 20:54	
04	03:15 eta 15:43	09:25 eta 21:42	
05	04:01 eta 16:25	10:09 eta 22:26	
06	04:45 eta 17:07	10:52 eta 23:10	
07	05:28 eta 17:49	11:34 eta 23:54	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

MARTXOA

■ 24 eta 25ean, Gallo.
■ 26an, Iriarte.
■ 27an, Larrañaga.
■ 28an, Zulaika.
■ 29an, Etxeberría.
■ 30ean, Gallo.
■ 31n, Azaldegi
APIRILA
■ 1ean, Azaldegi
■ 2an, Larrañaga.
■ 3an, Mutiozabal.
■ 4an, Gallo.
■ 5, 6 eta 9an, Iriarte.
■ 7, 8 eta 10etik 13ra, Lasa.
Gauetz: Zulaika

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8. 94313 31 83 Zarautz
Barrenetxea: Gipuzkoa, 17. 94383 23 98 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 94383 29 70 Zarautz
Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 94313 38 14 Zarautz
Lasa: Herriko plaza. 94383 09 36 Orrio
G. Artiñano: Zigordia kalea, 17. 94313 40 19 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 94313 29 83 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 94313 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08	22:40
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:41	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:47
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN**DONOSTIA-ZARAUTZ**

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:25	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25		10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25		16:25	17:25	18:25		19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45		10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45		16:45	17:45	18:45		19:45	20:45	21:15
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN**DONOSTIA-ZARAUTZ**

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	22:30
Orio	8:35	9:35	10:35	11:35	12:35	13:35	14:35	15:35	16:35	17:35	18:35	19:35	20:35	21:35	22:35	23:05
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
Orio	6:55	7:55	8:55	9:55	10:55	11:55	12:55	13:55	14:55	15:55	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira

Orio

Ingurumena

■ Martxoaren 24an, Antilla hondartzaren garbiketa. Orioko Surf Taldeak eta Herrio natur taldeak antolatuta. Itsas Ekimenak ekitaldiaren baitan. 10:30ean.

Irteera

■ Martxoaren 25ean, goiz pasako ibilaldia Orio inguruan. Orioko Herri Ikastolak antolatuta. Ibilbidea: Orio-Saltxipi-Paorra-Mota-Orio. Irteera: 09:00etan, Ikastola aurreko plazatik. Itzulera: 13:00ak aldera.

Ipuin kontalaria

■ Martxoaren 27an, Lupe Lekuona ipuin kontalariaren saioa. 5 eta 8 urte arteko umeentzat. 18:00etan, Udal liburutegian.

Informatika

■ Martxoaren 28an 09:00etan eta apirilaren 2an eta 11n 11:00etan IT txartela ateratzeko azterketa, KZgunean.

Odol-emaileak

■ Martxoaren 28an, odol-ateratzea. 18:30etik 20:30era, anbulatorioan.

Traste zaharrak

■ Martxoaren 28an eta apirilaren 11n, traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Aurrez udaletxera deitu zein trasto aterako dituzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 03 46.

Traste zaharrak

■ Martxoaren 30ean, ostiralarekin, Ri ta Karre eta Arrutiko Intxaurrak taldeen kontzertua. Etxeluze gazte-txean, 22:30ean.

Ikastaroa

■ Apirileko lau larunbatetan, sukaldaritza makrobiotiko ikastaroa, Orioko Bashherri taldeak antolatuta. Irakaslea: Jexux Larretxea makrobiotika aholkularia. 09:00etatik 16:00etara, bazkaria barne. Izen-ematea: Lore burdindegian.

Kultur Etxea

■ Apirilaren 2tik 13ra bitartean Kultur Etxea goizez baka-rrik egongo da irekita. 09:00etatik 13:00etara.

Aia

Erromeriak

■ Martxoaren 25ean, Eneritz Bengoetxea, Edurne Errandonea eta Iñaki Letamendia trikitilariekin; apirilaren 1ean, Ostolaza eta Andonegirekin;

eta apirilaren 8an, Astiazaran anaiak eta Leirerekin. 18:30etik 21:30era, Andatzako Aristerrazu plazan.

Silo-Bolak

■ Apirilaren 14an, silo-bolen bilketa. Zerbitzuari buruzko informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 04 97 51).

Podologia

■ Apirilaren 14an, podologoaren kontsulta. Ordua hartzeko deitu 943 13 11 44 telefono zenbakira.

Landare Berezien Azoka

■ Apirilaren 14a azken eguna izena emateko, apirilaren 28 eta 29an Iturrarango lorategian egingo den 10. Landare Berezien Azokan bolondres lanak egiteko. Interesatuak dei dezatela 943 835 389 telefono zenbakira.

zure ziztada behar dugu



Informazio eguneratua eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

berria laguna izan nahi baduzu

• www.berria.info/berrialaguna

• Postaz: BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain

• Posta elektronikoz: laguna@berria.info

• Telefonoz: 943-30 43 45

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zallari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitetz

berria laguna

berria®

karkarak

behar zaitu

